



TESTUA IRAKURRI AURRETIK

- Nor da egilea? Non argitaratu zuen testua?
- Jakin dezakegu zertarako idatzi zuen?
- Titulua irakurri ostean: jakin dezakegu zertan datzan?
- Zer dakigu gaiari buruz?

Orain testua irakurri eta ...

Energia berriztagarriak?

Zer berriztagarriak?

Azken boladan Espainian puri-purian dago energia berriztagarrien kostuaren inguruko eztabaida. Bizi dugun krisi



ekonomikoa kontuan hartuta [...]:

energia berriztagarrien instalazioak eraikitzen jarraitu beharko al genuke Espainian?

Zer instalazio mota eraiki beharko lirateke? Ez al dira garestiegiak? [...]

Sustatu behar den energia motari buruzko iritzia emateko edo zein instalatu behar den erabakitzeko, energia berriztagarrien ekoizle bakoitzak energia unitate bat (kWh) [kilowatt-ordu] zer preziotan ekoitz dezakeen hartzen da kontuan. Prezio hori, ordea, sistema elektrikorako kostu nominala baino ez da. Kopuru hori ez da kontsumitzaileek ordaintzen dutena [...]


IRAKURTZEN DUZUN BITARTEAN

- Azpimarratu ulertzen ez duzun hitzak geroago informazioa topatzeko.
- Azpimarratu zein energia motak agertzen diren



Funtsean, gaur egun lau dira teknologikoki helduak diren energia berriztagarriak (energia hidraulikoa alde batera utzita): eolikoa, fotovoltaikoa (FV), biomasa eta eguzki-energia termikoa.

Energia eolikoa



Energiarik merkeena eolikoa da. Baina kontsumitzaileek ordaintzen duten tarifa BOEn onartzen den eta ekoizleei ordaintzen zaien tarifa nominal hori bera al da? Ez, energia eolikoa aldizka ekoizten baita. Horrek esan nahi du, haizerik ez dabilenean, energia eolikoaren ordez erabiliko dugun energia sortuko duten instalazioak behar ditugula (normalean, ziklo konbinatukoak gas naturalarekin).[...] Beraz, energia eolikoaren kostu errealak ez da haren ekoizleei ordaintzen zaiena; kostu hori kalkulatzeko,



hornidura elektrikoa bermatzeko ezinbestekoak diren ziklo

konbinatuko instalazioen amortizazioa ere kontuan izan behar da. [...]

Haizea egunez zein gauez ibiltzen da, baina eskari elektrikoa txikia izaten da gaueko ordu txikitik eta goizaldean. Zer gertatzen da energia eolikoaren ekoizpena haren eskaria baino handiagoa denean? Bota egin behar da, ez baita posible elektrizitatea merke eta modu eraginkorrean biltegitratzea. Eta inbertsio-kostuak eta mantentze-kostuak etengabeak direnez, kontsumitzen den energia eolikoaren kWh bakoitzaren kostua kostu nominala baino altuagoa da.


Espania gaitasun eoliko handia duen herrialdea da, eta dagoeneko, hasia da jatorri eolikoko energia botatzen. Kantitate mugatuaz ari garenean, posible da sobera dagoen elektrizitate horren parte bat gordetzea, urtegi batzuetara ura ponpatuz. Kasu horretan, energia presen oinarrian metatzen da (ponpaketa-zentrala), eta behar denean, berriz ekoizten da, edozein zentral hidroelektrikotan bezala. [...]

Iturria: Daniel Villalba, *El País*, 2012ko urtarrilaren 29a



Energiaren kostua

Grafikoan, energia berriztagarriak eta konbentzionalak erabiliz lortzen den energiaren kWh bakoitzaren batez besteko prezioa ageri da.



TESTUA IRAKURRI OSTEAN

- Zer da kWh-aren kostu nominala? Kontsumitzen den kWh bakoitzeko ordaintzen den prezioa al da?
- Zein dira «teknologikoki heldutzat» jotzen diren energia berriztagarriak? Zeinek eskaintzen du kWh merkeena?

Grafikoa aztertuz:

- o Espainian zentral eolikoak eta eguzki-zentralak eraikitzen jarraitu beharko al genuke? Zergatik?
- o Zein dira energia-iturri berriztagarrien abantailak epe luzera?
- Espainian, gau haizetsuetan, kontsumitzen dena baino energia gehiago ekoizten da.
 - Zer egiten da zentral eolikoetan ekoizten den gehiegizko energiarekin?
 - Nola balia dezakegu energia hori?